EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
Justizia Sailburuordetza
*Justizia Administrazioko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA
Viceconsejería de Justicia
*Dirección de la Administración de Justicia*

**EBAZPENA, 2017KO URRIAREN 10EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, *EUSKARA ON-LINE IKASTAROAK* EGITEKO ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA**

## AURREKARIAK

Justizia Administrazioko langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, Zuzendaritzak 2017/2018 ikasturterako *EUSKARA ON-LINE IKASTAROAK* eskaini ditu.

Deialdian ezarritakoa betetzeko asmoz, hona hemen zuzendaritza honek zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak, kode bidez laburturik eta kontuan hartutako ordenaren arabera:

| Kodea | Irizpidea |
|---|---|
| 1 | Justizia Administrazioko langilea ez izatea. |
| 2 | Justizia Administrazioan momentu honetan lan ez egitea. |
| 3 | Eskatzen den gutxieneko euskara-maila ez izatea. |
| 4 | Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak ikastaroari uko egin izana. |

Horren ondorioz, honako hau

## XEDATU DUT

LEHENA.- *EUSKARA ON-LINE IKASTAROAK* egiteko onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda onartzea eta argitaratzea, baita zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak ere, zeintzuen kodeak ebazpen honetan zehazten diren.

BIGARRENA.- Interesdunek **urriaren 10etiK 17ra arte (biak barne) izango dute behar bezala dokumentaturiko erreklamazioren bat** egin nahi badute Justizia Administrazioko Zuzendaritzan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 10a

Mª Isabel Grabiel Bellido
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 94 80 – Faxa 945 01 91 51